

Foru Aldundia akusazio partikular gisa pertsonatuko da akzio penalak eta zibilak egikaritzeko Bonelli arrano batek jasotako tiro baten ikerketan

Ingurumen Fiskaltzak Gasteizko Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegira bidali du ikerketa, eta hark aurretiazko eginbideak ireki ditu

Gertaera hori 2018ko abenduan jazo zen; orduan bidali zion Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak Fiskaltzari tiro bat jasota Kanpezun aurkitu zuten espezie horretako hegazti baten kasua Bonelli arrano hura Martiodan indarberritu zen; hain zuzen, espezie hori galzorian dago

Gasteiz, 2019ko abenduaren 11a. Arabako Foru Aldundia akusazio partikular gisa pertsonatuko da akzio penalak eta zibilak egikaritzeko, Bonelli arrano batek jasotako tiroa dela eta Gasteizko Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegia egiten ari den ikerketaren kasuan.

Gertaera hori 2018ko abenduan jazo zen; orduan bidali zion Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak Ingurumen Fiskaltzari perdigoitiro bat jasota Kanpezun, Nafarroako mugaren ondoan, aurkitu zuten Bonelli arrano gazte baten kasua. Fiskaltzak berak Gasteizko epaitegira bidali zuen kasua, eta orain aurretiazko eginbideak izapidetzen ari da.

Bonelli arranoa galzorian dagoen hegaztia da, eta Europako LIFE Aquila proiektuaren parte da. Arabako Foru Aldundiak espezie hori berreskuratzeko parte hartzen du proiektu horretan. Izan ere, zauritutako alea Arabako Mendialdean sartu zen berriro, Europako proiektu horren barruan. Zorionez, Martiodako Faunaren Suspertegian indarberritzea lortu zuen han sartu zenetik lau hilabetera, eta, gaur egun, askatu zuten lurraldean jarraitzen du.